

Emakumeok
planto



MARTXOAREN 8AN, GREBA FEMINISTA

“Emakumeok* planto.
Nosotras paramos.
Nous on s'arrête”

Zergatik behar dugu greba feminista bat?

2017an, Argentinako feministek lan produktibo eta erreproduktiboan greba deitu zuten, mundu-mailan, “Ni una menos, vivas nos queremos” lelopean; 70etik gora herrialdek erantzun zuten. Mobilizazio horrek bazuen aurrekaririk: 1975ean, Islandiako emakumeek planto egin zuten, eta, batez ere, 2016ko urriaren 3an, Poloniako emakumeek greba egin zuten, Abortu Legearen aurka egiteko.

2018an, mugimendu feministak, ohiko greba-ereduari ihes eginez, beharrezkotzat jo du emakume guzti-guztiok planto egin eta munduari, gobernuei eta jendearteari erakustea ezinbestekoak garela. Ondorioz, greba feminista deitu du, ordena patriarkal, kapitalista eta ingurumen-suntsitzaileari aurre egiteko, indarkeria matxisten aurka borrokatzeko, gure gorputzen, sexualitatearen eta bizi-ibilbideen jabe izateko, justizia sozialaren alde ekiteko eta bestelako mundu bat eraikitzeko, hots, bizitza, ekonomia eta harremanak bestelako modu batean ulertu eta antolatuko diren mundu bat eraikitzeko.

Greba hau ez da ohiko greba bat, izan ere, enpleguaren mundutik baztertu ohi diren beste lan horiek ere bildu behar baititu. Iau ardatz izango ditu: enplegua, kontsumoa, zaintza eta ikasketak.

STEILAS bat dator greba honen helburuekin eta horren bidez aurkezten diren borrokekin, hortaz, martxoaren 8 honetako nazioarteko deialdiarekin bat egin nahi dugu, eta greba feministari atxikimendua eman nahi diogu,

Emakumeok plantox



hala, deia egin nahi diegu gure afiliatuei, 4 orduko lanuztea egin dezaten, deialdian horixe proposatu baita.

Horrez gain, ikasle-neskak ikasleen ardatzetik planteatzen ari diren tokiko asanbladetan parte hartzera animatzen ditugu, neskek greba egiteko duten eskubidea errespetatuko da, arlo kurrikularra ez da aurreratuko eta ikasle-mutilekin greba honen zergatia lantzea proposatzen dugu. Momentu ona da emakumeek alor publiko eta pribatuan daukaten menpeko paperari buruz eta gizonen/mutilen pribilegioei buruz hausnartzeko.

Enplegu-greba

- Emakumeen %64 ari delako lanean, gizonak baino %6 gutxiago, eta, gainera, proportzioan emakume gehiago ari direlako enplegu partzial eta prekariotan.
- Emakumeek gizonek baino %25 gutxiago irabazten dutelako EAEn, eta %30 gutxiago, berriz, Nafarroan.
- Lan-ereduaren egitura hierarkikoak menderatuaren tokian jartzen dituelako emakumeak, eta haien erabakiak hartzeko boterea mugatzen dutelako. Lan-arloan sexu-segregazioa gertatzen delako hala maila horizontalean nola bertikalean.
- Emakume askok sexu-jazarpena pairatzen dutelako lan-eremuan.

Zaintza-greba

- Gehienbat emakumeek egiten dituzten eta bizitzari eusteko premiazkoak diren zaintza-lanek ez daukatelako aitortzarik eta ez direlako ikusten.
- Emakumeek eta gizonek erantzunkide izan behar dutelako zaintza-lanetan, eta premia hori ikusarazi behar dugulako, eta esparru publikora ekarri.
- Zerbitzu publikoek herritarren zaintza bermatu behar dutelako.

Ikasleen greba

- Genero-rol estereotipatuak deuseztatu behar direlako, ez baitute uzten pertsona askatasunean garatzen.

Emakumeok plantox



- Emakumeon jakintza hala pertsonala nola kolektiboa ez delako curriculumaren parte inongo ikasketa-eremutan.
- Ikasleen ikasketak modu sesgatuan bideratzen direlako oraindik ere, eta emakumeak zaintzarekin loturiko jardunetara bideratzen.
- Emakume ikasleei arreta eta hartu-eman gutxiago eskaintzen zaielako, eta, horren ondorioz, ezin dutelako modu osoan parte hartu.
- Neskei ez zaielako erasorik gabeko espazio segururik bermatzen.

Kontsumo-greba

- Baliabide naturalak xahutzeari utzi behar diogulako.
- Kontsumo arduratsu eta iraunkorra behar dugulako.
- Kontsumismoak emakumeen gorputza objektu bihurtzen delako.

Hauxe aldarrikatu nahi dugu:

- Zerbitzu publikoak beste modu batean antolatzea non bizitza pertsonala, familiarra eta enplegua bateratu daitezkeen eta bizitza baldintza berdinetan garatuko den.
- Emakumeen rolak eta haien jakintzak aitortu daitezela ezagutza-alor guztietan.
- Zaintza- eta etxeko lanak erantzunkidetasunez egitea.
- Emakumeek espazio pribatu eta publiko seguruak eduki ditzatela kalean, lanean eta eskoletan.
- Emakumeek modu osoan parte har dezatela jendarteko eremu guztietan.
- Indarkeria matxistak deuseztatzeko neurri integralak eta behar adina baliabide egon daitezela.
- Emakumeak eta gizonak baldintza berdinetan aritu daitezela lan-eremuan.
- Baliabideak ez daitezela arduragabe erauzi eta erabili.
- Bidea egin dadila elikadura-subiranotasunerantz.

Emakumeok plant^o



Gizonek nola har dezakezue parte greba honetan?

- Erraztu emakumeon greba-eskubidea, martxoaren 8an guri egin baitzaigu deialdia, eta eman erabateko protagonismoa emakumeei, hartara, urte osoko ikusezintasuna orekatzeko.
- Hartu familiako zaintzen eta etxeko lanen ardura.
- Hausnartu emakumeok esparru publikoan eta pribatuan jasaten dugun diskriminazioaren gainean gogoeta egin genero-pribilegioei uko egiteko moduez, hartara, jendarte berdinzaleago bat lortzeko.
- Egun horretan, egon zuen lanpostuetan, eta grebari laguntza eman nahi izatekotan, eman egun horretako soldata kausa feministari.
- Neskek greba egiteko duten eskubidea errespetatu, arlo kurrikularra ez aurreratu eta ikasle-mutilekin greba honen zergatia landu.
- Ikasleekin arrazoitu indarkeria matxistaren edozein zantzo baztertzeko, jarrera matxistak ezagutu eta identifikatu, emakumeek historikoki jasan duten diskriminazioaren aurka publikoki agertu, aldarrikapen feministak babestu... Alexander Cecilia Assonen (2014) hitzetan:

“Kontua ez da emakumeek aukera gutxi dituztela, baizik eta gizonok aukera gehiago ditugula. Hainbesteko aukerak ditugunez, pribilegioak ditugu. Aukera gehiegi lortu ditugu besteenak lapurtuz”.

